

KULTUR ETXEA ERABILTZeko ESKAERA

ELKARTEA:

Izena:	IFZ
--------	-----

ARDURADUNA:

Izen-abizenak:	NA-IFK / DNI	Sexua <input type="checkbox"/> E <input type="checkbox"/> G
Helbidea:	K.P.	Herria
Telefonoa	E-posta	

ADIERAZTEN DUT:

- Kultur Etxeko arauak ezagutzen ditudala eta onartzen ditudala.
- Nire gain hartzen dudala Kultur Etxeko arauak bete eta betearaztearen erantzukizuna.
- COVID 19arengatik, aretoa erabili ahal izateko, ezarritako segurtasun eta arauak onartzen ditudala:
 - Aretoa sartu aurretik, eskuak desinfektatu behar dira.
 - Derrigorrez, maskara erabili behar da.
 - Segurtasun distantzia mantendu behar da (1,5 metro).
 - Aulkiak lurrean ezarritako, markatutako lekuan jarri
 - Bertako tresnak edo gailuak erabili ondoren, desinfektatu beharko dituzue.
 - Aulkiak eta mahaia erabili ondoren, zeuden bezala utzi beharko dituzue.
 - Gehienezko aforoa bileretan: 16 pertsona, hizlariak barne.

NOIZ ERABILTZeko:

Eguna	Hasiara ordua	Bukaera ordua

Aretoari emango zaion **ERABILPENA**:

--

PROIEKTOREA behar duzu: BAI EZ

Portatila zurea ekarri beharko duzu

Tokia eta eguna	Sinadura

Oiartzungo Udalak, sarrera eta irteera erregistroa kudeatzeko garaian, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera tratatzen ditu datuak. Datu pertsonalak eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezertzeko, eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamendu horren aurka jartzeko. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Udaletxeko helbidera edo dbo-dpd@oiartzun.eus posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago www.oiartzun.eus webgunean eskuratzeko.

KULTUR ETXEA ERABILTZEKO ARAUAK

Oiartzungo Kultur Etxeak herritar guztiei zabaltzen dizkie bere ateak. Bertan garatzen den jarduerarik nagusiena Manuel Lekuona Bibliotekarena da baina horretaz gain aukera zabala eskaintzen du bestelako kultur ekintza guztietarako.

Kultur Etxearen erabilpen egokiari begiraturaz jarraian datoz derrigorrez bete beharreko baldintza eta arauak:

1.- Idatzizko eskaera bat aurkeztu behar da udal erregistroan, zazpi egun aurretik gutxienez, zer egin nahi den, zer egunetan, eta zer ordutan azalduz.

2.- Idatzizko eskaera hori zein elkartearen izenean egiten den adierazteaz gain, pertsona fisiko baten izen-abizen, helbide eta telefonoarekin osatuko da. **Eskaera sinatuta aurkeztu beharko da.**

3.- Kontutan izan Kultur Etxeko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09.00etatik 13.00ak arte eta 16,00-tatik 20-ak arte; larunbatetan, 09etatik 13-ak arte. Uztailaren 15etik abuztuaren 31 arte: astelehenetik ostiralera, 8-etatik 14-ak arte; larunbatetan 09.00etatik 13-ak arte.

4.- Biblioteka irekita dagoenean errespetatu isiltasuna.

5. - Gizabidez jokatu. Zaindu Kultur Etxeko instalazio, tresneria eta altzariak, erabilitakoa zegoen bezala utziz, bereziki ordena eta garbitasunari dagokienean. Ekintza amaitu ondoren, **bibliotekan egongo den arduradunari adieraziko zaio bukaera.**

6.- Udalaren baimen berezia behar da: ohiko ordutegitik kanpo hasten diren jarduerentzako, edota Kultur Etxeko tresneria kanpoan erabiltzeko.

7.- Kultur Etxeak eskaintzen duen tresneria erabili ahal izateko alde aurretik eskatu eta goian adierazitako ordutegiaren barruan antolatuko da ekintza. Ekintza beranduago bukatuko edota hasiko balitz, udaltzainei deitzeko ardura hartuko du interesatuak.

Kasu guztietan eskatzaileak arduratu beharko du tresneria horren erabileraz, aparatuak pizteaz eta itzaltzeaz. Interesatuak egokia ikusten badu, alde aurretik 5-6 eguneko tarteaz bertako arduradunekin tresna horien erabilera ikasi ahal izango du.

8.- Kultur Etxeko ohiko ordutegitik kanpo bukatzen diren ekintzei dagokienez, goian aipatutakoaz gain, antolatzailea leihoak itxi, argiak itzali, eta sarrerako atea ixteaz arduratuko da. Udaltzainek atea giltzatu dezaten eta alarma jar dezaten deituko ditu arduradunak, eta **hauek etorri bitartean arduradunak ezin izango du bertatik alde egin.**

9.- Antolatzailea Kultur Etxeko arauak bete eta betearazteaz arduratuko da. Egin ezean aurre egin beharko die gerta daitezkeen kalte eta ezbehar ekonomiko eta bestelakoei.

10.- Eskaera-orria sinatzeak erabilera-arau hauek onartzea dakar.

Bestalde, COVID-19aren ondorioz ezarritako segurtasun eta garbitasun arau hauek bete beharko dira:

- Aretoan sartu aurretik, eskuak desinfektatu behar dira.
- Derrigorrez, maskara erabili behar da.
- Segurtasun distantzia mantendu behar da (1,5 metro).
- Aulkiak lurrean ezarritako, markatutako lekuan jarri
- Bertako tresnak edo gailuak erabili ondoren, desinfektatu beharko dituzue.
- Aulkiak eta mahaiak erabili ondoren, zeuden bezala utzi beharko dituzue.
- Gehienezko aforoa bileretan: 16 pertsona, hizlariak barne.